



Verdiren
Rigoletto

Euskadiko Orkestra
Sinfonikoa.

Zuzendaria:
Miguel Angel
Gomez Martinez.

**Bilboko Operaren
Abesbatza.**

Zuzendaria:
Boris Dujin.

**Eszena-zuzenda-
ria:** Emilio Sagi.

Bakarlariak:
Elena Mosuc, Leo
Nucci, Ismael
Jordi, Iryna
Zhytynska.

Lekua: Bilboko
Euskalduna
Jauregia.

Data: urriaren
25a.

Brava Gilda

AURRERA DOA Operaren Lagunen Bilboko Elkarte aurtengo zikloarekin, eta zikloan bertan hain garrantzitsua den *Tutto Verdi* proiektuarekin. Irailean *Giovanna d'Arco*-ren txanda izan zen, oso ezaguna ez den titulu eder bat, eta urrian, aldiz, maisu italiarraren lan famatuenetako bat: *Rigoletto*. Nork ez du noizbait tararatu *La donna è mobile* aria hiperfamatua? Ba, opera honekin, musikaren *hit-paradeko top-ten* guztiekin gertatzen den bezala, edo zoragarri, edo penagarri. Baina zorzea izan dugu, eta, benetan, OLBEk ekarritako bertsioa primerakoa izan zen, batez ere bakarlariengatik. OLBEk eta Lisboako Sao Carlos Antzerki Nazionalak egindako produkzioa txukuna izan arren, ez zen emanaldiaren onena. Soiltasuna askotan txalogarria da, baina soiltasunaren eta pobrezia-aren arteko muga oso fina izan daiteke, eta kasu honetan gauza gutxi esan daiteke eszenografiari buruz: argiztapena ondo, jantziak ere bai, besterik ez. Inpaktu bisual pittin bat faltan bota genuen. Halere, bertute musikalak dastatzeko aukera izan genuen, sobran. Eta horretan zentratuko naiz.

Miguel Angel Gomez Martinezek graziaz zuzendu zuen Bilbao Orkestra Sinfonikoa. Gure artean ezaguna eta maitatua den zuzendari honek (duela urte dexente Euskadiko Orkestraren zuzendari titularra izan zen) taxuz eraman zuen batuta (nahiz eta batzuetan amore gehiegirekin, estali egiten baitzi-

tuen ahotsak). Bilboko Operako Abesbatza ere fin. Baina luxuzko bakarlariak izan genituen. Elena Mosuc soprano errumaniarrak Gilda paregabea oparitu zigun. Delikatua, sinesgarria, interpretazioaren aldetik; eta oso egokia bere ahots tesiturarengatik. Menderatzen du pertsonaia bokalki, eta horrek ematen dio askatasuna bertsio freskoa emateko. Txalo eta *bravo* ugari jaso zituen, oso mereziak. Halere, Mosuc saioaren izarra izan arren, aipamen berezia egin behar zaio Ismael Jordi tenorearen aktuazioari, Duca di Mantova pertsonaian. Distiratsua izan zen bere interpretazioa uneoro. Alfredo Kraus-en ikaslea izan zen eta nabaritzen zaio, asko. Emisio dotorea, ahots gozoa erregistro guztietan (ze pena justu *La donna è mobile* ariaren azken notan ateratako kiboa). Eta, dena esan behar bada, akats gabeko presentzia du taula gainean edozein galaien rola irudikatzeke. Perfektua. Bestalde, Leo Nucci, Rigolettoren rolean, sendo aritu zen, sakontasuna eman zion pertsonaiari. Eta Iryna Zhytynska mezoak (María José Montiel-en ordeztu, azken honek istripu bat izan zuelako 22an izandako emanaldian) Maddalena ederra egin zuen, nortasun handikoa.

Saio txalogarria, beraz. ■

Montserrat Auzmendi

